

### II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

#### IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

**Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioarentzat gordetako lanpostua betetzea, zehazki Iruraiz-Gaunako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua**

Iruraiz-Gaunako Udaleko idazkaritza-kontuhartzailera lanpostua uko egitearen ondorioz hutsik geratuko dela kontuan hartu da. Gaur egun plaza betetzen duenak 2026ko urtarrilaren 9an aurkeztutako 2026/28ko sarrera erregistroaren arabera, uko egingo dio 2026ko urtarrilaren 23tik aurrera.

Estatuturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditut kontuan, eta hau

#### EBATZI DUT

Lehenengoa. Prozedura abiaraztea proposatzeko izenda dadila estatuturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat Iruraiz-Gaunako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, estatuturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan jasotako moduetakoren batean.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartze eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estatuturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehen-tasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta Iruraiz Gaunako Udalak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estatuturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea.

Lan harremana: estatuturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estatuturako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailletza.

Taldea: A1.

Destino osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 20.337,25 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4.

Derrigortasun data: 2024ko urtarrilaren 19a.

Azilu, 2026ko urtarrilaren 12a

*Alkatea*

*IRATXE DEL BARCO MURUA*